

Antxiñako fotografixak

San Juan Artixako azkeneko irudixak

San Juan Artixa aittaketiak milla pentsamentu ekarten dosku burura. Umetako oroitzapen lausuak: "Ondo portaitten ezpazara, San Juan Artixara bialduko zaut morroi". Edota baserrixa hustu zanekua, bostehun urtetik gorako historiaren ondoren. Izan be, lehenengo idatzitako agirixa 1500ekua dan arren, San Juan Arantzazu baiño lehenegokua zala pentsau izan da beti. Oñatittik Arabarako bidian, Katillu-itturrittik zihar. eguen azkenengo **baserrixa**, **ermittia** eta **bentia** zan batera, eta hola jarraitu eben gizaldi askuan. Zenbat pasadizo, gertaera, kontrabando, lapurreta eta edurte ez euen ezagutu paraje ikusgarri baiña latz horreik!

Ermittia eta bentia lehenago desagertu ziran baserrixa baiño. Baserrixak 1957 ingururaino iraun eben eta **Ugarte familixakuak** izan ziran etxe haretako **azkeneko bizilagunak**. Eibarren topau bihar izan zittuain bizileku eta lanbide barrixak, orain familixako batzuk Eorrixon bizi baldin badira be. Eibarrera alde baiño lehen-txuago, despedida moduan-edo, Arantzazuko hiru fraideren eta Oñatiko kaleko bost mendizaleren bisittia euki euen. Egun horretakua ei da San Juan Artixako sukaldian ataratako fotografixa bata. Bestiak, barriz, San Juanek 1950 aldera kanpotik eukan itxuria erakusten dosku. Orain, dakitzuenez, harri-pillia besterik ezta geraketan. Honeik dira atzetik aurrera eta ezkerretik eskumara agiri diranak:

Zutik: (X.) **Legorburu**, Oñatiko dentistia; **Kaximira Ugarte Maiztegi**, San Juaneko etxeoandria; **Benito Ugarte Anduaga**, Arrikruzkua, Kaximiraren gizona; **Maria Santos Maiztegi Ugarte**, San Juaneko amandria, Kaximiraren ama; eta beste puntan zutik, **Regino Biain** kaletarra.

Jazarritta atzeko illaran: **Luis Villasante**, Arantzazuko fraide eta euskaltzain ezaguna; **Isidro Gerra**, Arantzazuko fraide argazkilarixa; honen aurrian **Karmen Ugarte Ugarte**, Kaximira eta Benitoren alabia; **Joxe Iñazio Lasa**, Arantzazuko fraide eta historiadoria; eskumarago, **Gregorio Arratibel**, Oñatiko Guipuzcoano bankuko zuzendarixa; eta honen onduan **Felix Igartua** kaletarra.

Jazarritta aurreneko illaran: **Patxi Mendiola**, *Bidaurreta*; **Jesusa Ugarte Ugarte**, *Susi*, hau be Kaximira eta Benitoren alabia; **Joxe Mari Ugarte Ugarte**, aurrekuaren anaia; eta **Dionisio Mugartza**, Oñatiko erlojero eta argazkilarixa.

J. E.

Aitta Joxe Iñazio Lasak dixuenez, sukaldeko fotografixa 1956ko abenduaren 16xan ataratakua ei da. Argazki honeik eta beste batzuk, oso interesantiak, Jon Pescador Ugartek eskuratu dosku. Argibiderik gehixenak, barriz, Maria Ugarte Ugarterenak dira, Jonen izekorenak. Bittor Madinak bittartekaritza-lanak egin dittu eta Luis Mugartzak xehetasunen bat argittu dosku. Milla esker danoiri!

